

Euskara Arkaikoko adizki jokatuena gaineko ikergaiak. Corpusa eta azterketa filologiko-linguistikoak

Tesiaren egilea: Borja Ariztimuño López

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Instituta: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Doktorego-programa: Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia

Jakintza-arloa: Hizkuntzalaritza eta Filologia

Tesi-zuzendaria: Joseba A. Lakarra Andrinua eta Ricardo Gómez López

Tesiaren laburpena:

Doktorego-tesi hau aditz-morfologia diakronikoaren alorrean kokatzen da, eta Euskara Arkaikoko (gutxi gorabehera, XV-XVI. mendeetako) testuetako adizkiak ditu aztergai nagusi. Zehazki, garai hartako datibo- eta alokutibo-komunztaduradun adizkien ezaugarriak xeheki deskribatzeko eta haien bilakabidea azaltzeko saioa aurkezten du, aditz-joko osoaren testuinguru historikoan kokaturik. Horrez gain, tesiak beste helburu bat ere izan du: honelako ikerketetan beharrezko izaten den datu-bilketa bururaino eraman eta orain arteko corpusik osoena eskaintzea adizkitegi-formatuan.

Corpusa, esan bezala, Euskara Arkaikoko testuek osatzen dute, alegia, erabili ohi dugun periodizazioaren arabera, 1600 artekoak; baina, zenbait kasutan, 1625 arte luzatu da epea, lehenago lekukotu gabeko hizkerak eta beste zenbait testu labor garrantzitsu ere sar zitezten. Hala, 130 bat testu-iturritz osatu da datu-basea, adizki bakoitzaren agerpen guztiak bere testuinguruaz eta etiketa morfosemantikoz horniturik. Guztira, 8.200etik gora forma jaso dira, 100 aditz baino gehiagotan sailkatuz, trinko zein laguntzaile. Aldiz, salbuespen gisa, Leizarragaren testua da datubaseratu ez den bakarra, arrazoi metodologiko eta praktikoak tarteko; nolana ere, berdin aztertu eta kontuan hartu da.

Horiek horrela, tesiak bi zati nagusi ditu. Lehendabizikoan, ohiko sarrerako atalez gain, datu-basean jasotako formen adizkitegia eskaintzen da, lematizaturik, erabilerari buruzko informazio eta oharrekin, eta adibide banarekin. Jarraian, datu-baseko datibo-/alokutibo-komunztaduradun adizkietatik erazitako ezaugarri morfofonologikoak xehakutzen dira, besteak beste haien maiztasuna eta banaketa dialektal nahiz paradigmatika deskribatuz.

Bigarren partean, berriz, aurreko atalean azaleraturiko ezaugarrietako zenbaitetan sakontzen da haien azalpen diakronikoaren, bestelako inplikazioen eta galdera berrien bila. Hori hainbat modutara egin da, bai zenbait testu edo autoreren lekukotasunetatik abiatuz, bai adizki edo erro jakin batzuen barne-berreraiketa saioen bidetik.

Amaitzeko, azpimarratu nahi nuke zeinen lagungarri diren zenbait datu edo gertakari linguistiko eta baliabide metodologiko egokiak aditz-morfologiaren azalpen diakronikoan; esaterako, irregulartasun eta fosil morfofonologikoak barne-berreraiketan, filologia zehatza testuetako aditz-formak egoki (berr)interpretatzean, edota *analogia* eta *gramatikalizazio* kontzeptuak bilakaerak azaltzeko garaian. Finean, lekukotasun zaharrenetatik abiatuak, datibo-komunztaduraren azterketak adizki jokatuen morfologia diakronikoan duen azalpen-ahalmena agerian utzi nahi izan dut, eta bide horretan urrats zenbait egin.